



DIRU-BALIABIDE ESKASAK DITUZTEN PERTSONA EDO FAMILIEI BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO BARNE IRIZPIDEAK

ARAUDI APLIKAGARRIA

- DIRU-BALIABIDE ESKASAK DITUZTEN PERTSONA EDO FAMILIEI BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA, 2002ko irailaren 6ko GAOn argiratutakoa.
- 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena, eta 3/2023 Legearen bidez onartutako aldaketa.
- 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.
- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa; 34. artikulutik 37ra izan ezik (14/2022 Legeak indargabetutakoak).
- 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.
- Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen duen Agindua, zeinaren bidez ezartzen baitira, besteak beste, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko urte horretan gehienez emango diren diru-kopuruak.

BALDINTZA OROKORRAK

Udalak onartuta duen DIRU-BALIABIDE ESKASAK DITUZTEN PERTSONA EDO FAMILIEI BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIAN jasotakoak.

DIRUZTATU DAITEZKEEN GASTUAK

Udal erregelamenduaren 3. artikulua oinarri hartuz, ondorengoak:

- A) Jateko, janzteko edo antzeko lehen mailako beharrak. Laguntza hauek adina, erroldatze edo beste arrazoi batengatik oinarrizko errenta jasotzeko aukerarik ez duten pertsonen zuzentzen zaizkie. Atal honetan sartzen dira, beste inolako laguntzarik jaso ezinda, biziraupenerako gastuei aurre egiteko edo/eta dauden egoeratik irteten laguntzeko erakundeen gutxieneko laguntza behar duten kontzeptu guztiak.
- B) Osasun arreta. Osasun tratamenduak orohar eta bereziki droga-menpekotasunei buruzkoak. Elkarte terapeutikoetan edo/eta errehabilitazio zentroetara joatea eta egotea, joan-etorri gastuak, bidaiak. Honako hauek sartzen dira:
- b.1) Begiko protesiak
 - b.2) Belarriko protesiak
 - b.3) Dentistaren gastuak
 - b.4) Beste gastu batzuk:
 - Lehen mailako premietarako, gizarteratzeko zentro ezberdinetan dauden pertsonen.
 - Elkarte terapeutikoetara, gizarteratzeko eguneko zentroetara egiten dituzten joan-etorri eta garraio gastuetarako.
- C) Haurtzaroa eta gaztedia. Familia giroan, gizartean eta eskolan, haurtzaroen eta gaztediaren ongizatea bultzatzeko laguntzak. Batez ere, familia giroan adin txikiko edo gaztearen garapen eta heziketan eragingo duen zailtasunen bat dagoen kasuetan. Honako kontzeptu hauek jasotzen dira:



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

- c.1) Kirol-jarduerak egiteko kuotak (kirol egokitua barne), ikasturte horretan kirol federatuan diharduten ikasleentzat.
 - c.2) Eskolako joan-etorri gastuak, ikasketak Zarautzik kanpoko zentro arautuetan edo arautu gabeko homologatuetan egiten ari diren ikasleentzat.
 - c.3) Guraso bakarreko familietako seme-alaba adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatzeko gastuak, adingabearekin bizi den aitak, amak edo tutoreak lana egin edo ikasi ahal izateko.
 - c.4) Adingabe/ikasleek eskolaren jarraipen egokia egin ahal izateko kontratatutako Internet zerbitzu berriaren altaren eta kuoten ordainketa. Ikaslearen eskola maila LH1etik hasi eta batxilergo, modulu edo lanbide hastapenera arte.
 - c.5) Klase partikularrak, eskolako tutoreak beharrezkoa dela azaltzen badu.
- D) Ostatu eta etxebizitza. Alokairu, interes eta kredituen amortizazio gastuak; argi, gas eta antzekoen hornitze gastuak; bizigarritasuna eta etxebizitzaren oinarrizko ekipamendua.
Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan jarritako irizpideak jarraituko dira, eta urteroko aginduan finkatutako kopuruak.
- d.1) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantentzeko beharrezkoak diren gastuak.
 - d.1.1.) Alokairu-gastuak:
 - Etxebizitzaren errenta
 - Logelaren errentan
 - Ostatu, hotel eta pentsioetako egonaldiak
 - Alokairu-kontratu berria egiteagatik sortutako gastuak, baita agentziaren artekaritza-gastuak, fidantza (hilabete bati dagokion kopurua) eta lehen hilabetearen ordainketa ere.
 - d.1.2.) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesak eta amortizazioak eragindako gastuak.
 - d.1.3.) Etxeko gastuak
 - Elektrizitatea, gasa edo etxerako beste erregai-hornidura batzuk.
 - Ura, estolderia eta zaborrak, bai eta ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak ere (hiritarrak eta landatarrak). Jabekideen kuotak, eta etxeko segurtasun-gastuak.
 - d.2) Etxebizitza edo ohiko bizitokiaren bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako gastuak:
 - d.2.1. "Linea zuria" izeneko etxetresna elektronikoak eta altzariak.
 - d.2.2. Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak eta etxebizitzako oinarrizko instalazioak egiteko gastuak
- E) Bestelakoak. Orohar gizarteratzeko beharrezkoak diren gastuak estaltzeko; eta orohar pertsonak, eta bereziki bakarrik eta laguntzarik gabe bizi direnen autonomia urriko pertsonak baztertu, isolatu edo bakarrik uzteko arriskuari aurrea hartzeko.
Gastu horiek proposamen teknikoaren txostenarekin justifikatu beharko dira.

ONURADUNAK

Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte Zarautzen erroldatutako adin nagusiko pertsonak edo adin txikiko emantzipatuek, baldin eta aurreko artikuluan aipatutako gastu bati edo batzuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez badute.



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Irizpide gisa:

- Bizikidetzta-unitatea honako xedapen hauen arabera osatutakoa izango da: 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal sistemarena; horren aldaketa (3/2023 Legea); eta 173/2023 Dekretua, azaroaren 21ekoa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duena.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) baremo ekonomikoen barruan egonik, laguntza horien onuradun izateko beste baldintza batzuk betetzen ez dituzten kasuak izango dira.

Betiere, salbuespenak baloratu ahalko dira, egoeraren larritasunaren arabera eta gizarte txostenean justifikatuta.

BALORAZIO EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa baloratzeko, eskatzailearen eta hala badagokio, bizikidetzta-unitatearen gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan urteko diru-sarrera eta errenta, eta ondareari dagokionez.

Horretarako, eta eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzta-unitateak onuradun izaera betetzen duten zehazteko, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuek elkarreraginean egingo dituzte beharrezko kontsultak eta egiaztapenak beste administrazio publiko batzuekin (Foru Ogasuna, Eusko Jaurlaritza, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Lanbide, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa, etab.).

Interesdunak bere datu pertsonalak kontsultatu behar ez direla iritziz gero, aurkeztu ez ezik, aurka dagoela ere justifikatu beharko du, eta eskubide hori baliatu ahal izango du, bai eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko edo datu horiek mugatzeko eskubidea ere, horretarako prestatutako formularioen bidez.

Balorazio ekonomikoa 173/2023 Dekretuan oinarrituko da (azaroaren 21ekoa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duena).

Ondarea: bizikidetzta-unitateak duen kapital higigarriaren eta higiezinaren batura. Ondarea ezingo da izan urteko dirusarrerak bermatzeko errentetako ondare-muga baino altuagoa.

Hala ere, ondareari dagokionean ondorengo salbuespenak ezartzen dira. Ondarearen konputuan ez dira sartuko ondasun higiezin hauek:

- Bizikidetzta-unitateko titularrak edo beste kideren batzuek bizikidetzta-unitatearen diru-sarrera izateko helburuarekin beren kontura egiten dituzten jardueretarako erabilitako ondasun higiezinak. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da frogatzea azken zerga-ekitaldian jarduera ekonomikoa higiezin horretan helbideratuta dagoela.
- Karga ekonomikoak dituzten higiezinak edo higiezin zatiak. Ondorio horietarako, ez dira karga ekonomikotzat hartuko horien mantentze-lanei dagozkien gastuak (OHZ, argia, ura eta komunitateko gastuak).
- Higiezinak edo higiezin zatiak, baldin eta frogatzen bada ezinezkoa dela horietatik etekin ekonomikorik ateratzea.



ZENBATEKOAK ETA PERTSONA EDO FAMILIA ONURADUN BAKOITZEKO GEHIENEZKO KOPURUAK

Gehienez emango diren zenbatekoak:

- A) Jateko, janzteko edo antzeko lehen mailako beharrak. Laguntza hauek adina, erroldatze edo beste arrazoi batengatik oinarrizko errenta jasotzeko aukerarik ez duten pertsonen zuzentzen zaizkie:
- gehienez 2.500,00 € / urteko
 - Gehienez, hilabeteko: diru-sarrera bermatzeko errentan unitate familiarrari dagokionaren erdia esleituko da.

- B) Osasun arreta. Osasun tratamenduak orohar eta bereziki droga-menpekotasunei buruzkoak. Elkarre terapeutikoetan edo/eta errehabilitazio zentroetara joatea eta egotea, joan-etorri gastuak, bidaiak: Gehienez 2.500 € / urteko.

Zehazki:

- Lehen mailako premietarako, baldin eta gizarteratzeko zentro ezberdinetan dauden pertsonen kontzeptu honengatik GLLak eskatzeko baldintzak betetzen ez badituzte, hileroko gehienez lanbide arteko gutxieneko soldataren % 25 ordainduko da.
- Elkarre terapeutikoetara, gizarteratzeko eguneko zentroetara egiten dituzten joan-etorri eta garraio gastuetarako, 100 € /hileko gehienez. Kopurua eta denboraldia proposatu baino lehen, kontuan hartu MUGI soziala eskura dezaketena ala ez.

- C) Haurtzaroa eta gaztedia. Familia giroan, gizartean eta eskolan, haurtzaroan eta gaztediaren ongizatea bultzako laguntzak. Batez ere, familia giroan adin txikiko edo gaztearen garapen eta heziketan eragingo duen zailtasunen bat dagoen kasuetan.

Honako gehiengo kopuruak onartuko dira:

- c.1) Kirol-jarduerak egiteko kuotak: 225 €/ kirolari bakoitzak
- c.2) Eskolako joan-etorri gastuak: 40 € / hileko
- c.3) Adingabe/ikasleek eskolaren jarraipen egokia egin ahal izateko kontratatutako Wi-Fi zerbitzu berriaren alta eta kuoten ordainketa: 30 € / hileko
- c.4) Klase partikularrak: 75 € / hileko

- D) Ostatu eta etxebizitza. Alokairu, interes eta kredituen amortizazio gastuak; argi, gas eta antzekoen hornitze gastuak, bizigarritasuna eta etxebizitzaren oinarrizko ekipamendua.

d.1) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko gastuak.

d.1.1.) Alokairu-gastuak:

- Etxebizitzaren errenta: errentari bakarrek etxebizitzaren kasuan, edo GLLa eskatu duen BU bakarrek etxebizitza koerrentatu edo azpierreantatu badu, hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezin izango du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, koerrentan edo azpierreantatu ordaindutako prezioaren % 70.
- Logelaren errenta: hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezin izango du gainditu logelaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, ordaindutako prezioaren % 70.
- Ostatu, hotel eta pentsioetako egonaldiak: hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezin izango du gainditu ostatuaren prezioaren % 70.



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

- Alokairu-kontratu berria egiteagatik sortutako gastuak, baita agentziaren artekaritza-gastuak, fidantza eta lehen hilabetearen ordainketa ere: gehienez 2400 euro. Ezingo da 4 urte baino lehen berriro dirulaguntzarik onartu kontzeptu honetan.
- d.1.2.) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesak eta amortizazioak eragindako gastuak: hilean 300 euro emango dira gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.
- d.1.3.) Etxeko gastuak
 - Elektrizitatea, gasa edo etxerako beste erregai-hornidura batzuk: urtean 900 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450 euro gehienez.
 - Ura, estolderia eta zaborrak, bai eta ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak ere (hiritarrak eta landatarrak). Jabekideen kuotak, eta etxeko segurtasun gastuak: urtean 450 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 225 €.

Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria (PCV) jasotzen duten onuradunek ezingo dute d.1.1. eta d.1.2. ataletako dirulaguntzarik eskatu. Aldiz, d.2. ataleko laguntza eskatu ahal izango dute, nahiz PCVa eta gizarte-larrialdietarako dirulaguntzak bateraezinak diren. Kasu horietan onartuko zaion diru-kopurua gizarte larrialdietarako laguntzen kalkulu ekonomikoa egin ondoren tokatuko litzaiokeenaren % 60 izango da.

d.2) Etxebizitza edo ohiko bizitokiaren bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako gastuak:

d.2.1) "Linea zuria" izeneko etxetresna elektrikoak eta altzariak:

- Etxeko tresna elektriko bakoitzeko, gehienez 500 euroko diru-kopurua. Ontzi-garbigailua ez da hartzen ezinbesteko tresnatzat, kasu bereziren bat ez bada (ezgaitasuna..)
 - o Kasu guztietan, A** energia-kategoria badu, 100 € gehituko dira.
- Gas-galdara: gehienez 1.000 euro.

d.2.2) Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak eta etxebizitzako oinarrizko instalazioak egiteko gastuak: urtean gehienez 1.850 euro. Bi BU badira, bakoitzari 975 €

- E) Bestelakoak. Orohar gizarteratzeko beharrezkoak diren gastuak estaltzeko; eta orohar pertsonak, eta bereziki bakarrik eta laguntzarik gabe bizi direnen autonomia urriko pertsonak baztertu, isolatu edo bakarrik uzteko arriskuari aurrea hartzeko: gehienez 500 €.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Eskabide-orrian berariaz adieraziko dira Zarauzko Udaleko gizarte-zerbitzuek egingo dituzten kontsultak eta egiaztapenak, eskatzaileak eta, hala badagokio, bizikidetzta-unitateak onuradun izaera betetzen duten ala ez zehazteko soilik.



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Zarauzko udaleko Gizarte zerbitzuek elektronikoki kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu dokumentu horiek, datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez.

Arrazoi teknikoengatik beste administrazio publikoekin datuak eskuratzeko elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapidetzeko dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango diote interesdunari.

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Zarauzko Udalari berari emandako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako moduan. Tratamenduaren xedeei dagokienez (DBEO, 5.1.c art.), datu egokiak eta beharrezkoak baino ez dira eskatuko, datuak minimizatzeko printzipioaren arabera.

Zenbait datu kontsultatu behar ez direla iritziz gero, eskatzaileak, datu horiek emateaz gain, arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela, eta eskubide hori baliatu ahal izango du, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo mugatzeko eskubidea ere, horretarako prestatutako formularioen bidez.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen NANak. Atzerritarren kasuan, egoitza-baimenaren fotokopia (AIZ), eta, horrelakorik izan ezean, pasaportearen fotokopia.
- b) Bizikidetzaren unitatean adingaberik bada: Familia Liburua, edo zaintza eta tutoretza egiaztatzen duen agiria.
- c) Ezkontza-egoeraren frogagiria (banaketa, dibortzio edo ezkontza-deuseztasun kasuetan):
 - Ezkontzideak banantzeko, dibortziazteko edo ezkontza baliogabetezko epaia.
 - Hitzarmen arau-emailea.
 - Mantenu-pentsioa jasotzen bada, jasotako kopuruaren ziurtagiria.
- d) Aurkeztutako eskabidea arrazoitzen duen dokumentazioa. Gastuen aurrekontu, fakturak edo egiaztatgiriak.
- e) Beste administrazioekin elkarreraginean lortu ezin daitezkeen dirusarrereri dagozkienak (nominak, diru-sarreraren zinpeko aitopenak, etab.)
- f) Egoera behar bezala baloratzeko, espedientea tramitatzen duen gizarte langilearen iritziz ezinbestekoak diren gainerako dokumentuak.

Bizilekua eta bizikidetzaren ofizioz egiaztatuko da, Biztanleen Udal Erroldaren bidez.

ARRETA-PLANA ETA PROPOSAMEN TEKNIKOA

Eskaera eta dagokion dokumentazioa jaso ondoren, familiaren gizarte-langileak proposamen teknikoaren egingo du, eta hor laguntzaren helburua, zenbatekoa eta epealdia zehaztuko ditu. Era berean, titular eta/edo bizikidetzaren unitate onuradunarekin esku-hartzearen helburuak adostuko dira.

JUSTIFIKAZIOA

Emandako laguntza ordaindutako fakturen edo frogagirien bitartez justifikatu beharko dira, ebazpenaren jakinarazpenean jartzen duen epean.